

HAPPY AITONA



Happy Aitona, egoitzetako adinekoen bizi-kalitatea hobetzea du helburu, eta haien ongizate fisikoa, emozionala eta soziala sustatzen duten jarduerak antolatzen ditu. Tailerrak, ariketak, joko kognitiboak eta haien beharretara egokitutako jolas-ekitaldiak eskaintzen ditu. Gure helburua interakzioa, estimulazio mentala eta ariketa sustatzea da, laguntza eta komunitate giroa sortuz.

Happy Aitona, sozietate mugatu bat izango da, gutxienez hiru bazkide izango diuena eta Moyuan kokatuko gara, ondo komunikatuta dagoelako, azken finean metroa eta gainerako garraibideak hurbil daudelako. Honekin batera, Moyuan ez daude inolako aldaparik, guztiz laua da eta inguruko beste leku batzuekin alderatuta, aiton-amonentzako askoz erosoagoa izango da.

Gaur egun, gero eta gehiago dira senideek egoitzetara bidaltzen dituzten aitona-amonak. Haietako asko bakarrik sentitzen dira, senideek ez dietelako bisitarik egiten, denborarik ez dutelako edo gogorik ez dutelako, beste asko aspertu egiten dira, besterik gabe, beren egoitzan ez dagoelako ekintzarik, txangorik... Gure enpresarekin egin nahi duguna da aitona-amona horiek bakarrik ez sentitzea, ez aspertzea, irribarre egitea, denbora ona pasatzea. Bestalde, gure alde egin duten guztia eskertzeko modu bat da. Guk jokatu, ikasi eta abar egiten genuen bitartean, haiek lanean aritzen ziren herrialdea mantentzearen.

Beraz, haiek soilik sentitzea sahiesteko gure enpresa aktibitate, txango eta boluntario plan berri bat antolatzen ditu. Beste aldetik, eguneko zentro bat edukiko dugu eta hor aktibitate desberdinak egingo dira.

Sortzen den gizarte-ongizateak eragin positiboa du egoitzaren bizitzan eta jendearen artean. Antolatzen diren jarduerak, hala nola tailer, ariketa edo ekitaldi sozialek, adinekoen bizi-kalitatea hobetzen laguntzen dute, beren burua aktibo mantenduz eta dementzia bezalako arazoak prebenituz. Gainera, jarduera horiek sustatzen duten interakzio sozialak bakardadea eta isolamendua murrizten ditu, eta hori oso ohikoa da adineko pertsonengan.

Bestalde, jarduerak onura emozionalak ez ezik, fisikoak eta mentalak ere badituzte. Ariketak edota bestelako jarduera fisikoek osasuna hobetzen, mugikortasuna handitzen eta adinarekin lotutako gaixotasunak prebenitzen laguntzen dute. Horrek familietan sortzen duen lasaitasuna ere garrantzitsua da. Beren aiton-amonek jardueretan parte hartzen ari direla jakiteak segurtasuna ematen die, ondo zainduta daudela sentituko dutelako.